



Lehendakaria / Presidente
Imanol Zubizarreta Arteche

Kidea / Vocal
Mikel Ulazia Etxabe

Resolución 13/2025 ebazpena
Recurso 253/2025 errekurtsok

Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria
Nekane Orbegozo Zurutuza

AUTOBUSES CUADRA SA eta BILMAN BUS SL enpresek kontratazio-arloan jarritako errekurtsok berezian, alde batetik, kontratazio-mahaiaren 2025eko irailaren 10eko erabakiaren aurka, zeinaren bidez beraien proposamena kontratazio-prozeduratik kanpo uzten baita ("Bidasoa Behereko, Oarsoaldeko eta Donostiarekiko loturetako erabilera orokorreko bidaiarien hiriarteko garraio-zerbitzu publiko erregularra emateko emakida (LUR-E-01)"), eta, bestetik, Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru diputatuaren irailaren 22ko FA-ML-2025-0214 Foru Aginduaren aurka, zeinaren bidez errekurtsogileei gainerako enpresa lizitatzailiek aurkeztutako eskaintza teknikoetarako sarbide partziala ematea erabakitzen baita, Kontratu Errekurtsoen Foru Auzitegi Administrazioak, gaurko egunean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu du aho batez:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por las empresas AUTOBUSES CUADRA, S.A y BILMAN BUS, S.L, contra el acuerdo de la mesa de contratación de 10 de septiembre de 2025, por el que se excluye su oferta del procedimiento de contratación de la *“Concesión para la prestación de los servicios de transporte público interurbano regular de viajeros de uso general por carretera de las comarcas del Bajo Bidasoa, Oarsoaldea y sus conexiones con San Sebastián (LUR-E-01)”* por un lado y, contra la Orden Foral FA-ML-2025-0214, de 22 de septiembre, de la diputada foral del Departamento de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio por la que se acuerda otorgar a las recurrentes el acceso parcial a las ofertas técnicas presentadas por el resto de empresas licitadoras, por otro, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo:

AURREKARIAK

LEHENA. - 2025eko urriaren 2an, lehen aipatutako egintzen aurkako kontratazio-arloko errekurtsok berezia sartu zen Auzitegiaren erregistro elektronikoa. Errekurtsok 253/2025 zenbakiarekin erregistratu zen.

BIGARRENA.- Auzitegiak ofizioa bidali zion Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuari, errekurtsokaren kopia bidaltzeko eta espedientea eta errekurtsokari eta eskatutako kautelazko neurriari buruzko txostena eskatzeko. Hori guztia urriaren 24an sartu zen Auzitegiaren erregistroan.

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO. - Con fecha 2 de octubre de 2025 tuvo entrada en el registro electrónico del Tribunal el recurso especial en materia de contratación contra los actos anteriormente referenciados. El recurso quedó registrado con el número 253/2025.

SEGUNDO.- El Tribunal dirigió oficio al Departamento de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio remitiéndole copia del recurso y reclamándole el expediente y el correspondiente informe acerca del recurso y de la medida cautelar interesada. Todo lo cual tuvo



entrada en el registro del Tribunal el día 24 de octubre.

HIRUGARRENA.- 2025eko azaroaren 5eko Ebazpenaren bidez, Auzitegiak adjudikazio-prozedura etetea erabaki zuen, errekurtso berezia ebatzi arte.

LAUGARRENA.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 56.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, Auzitegiak errekurtsoa helarazi zien proposamena aurkeztu zuten lizitatzailerei, eta bost egun balioduneko epea eman zien alegazioak aurkezteko.

Azaroaren 14an, adjudikaziodun gisa proposatutako eta EKIALDEBUS GARRAIO TALDEA (ZUREKIN BUS SL, EKIALDEBUS SL eta SUBUS GRUPO DE TRANSPORTE SLU) osatzen duten enpresek alegazio-idazkia aurkeztu zioten errekurtso bereziari.

TERCERO.- Por Resolución, de 5 de noviembre de 2025, el Tribunal acordó suspender el procedimiento de adjudicación hasta que se resuelva el recurso especial.

CUARTO.- De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 56.3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (en adelante, LCSP), el Tribunal dio traslado del recurso a los licitadores que presentaron proposición, concediéndoles un plazo de cinco días hábiles para formular alegaciones.

El 14 de noviembre las empresas propuestas como adjudicatarias y que componen EKIALDEBUS GARRAIO TALDEA (ZUREKIN BUS, S.L, EKIALDEBUS, S.L y SUBUS GRUPO DE TRANSPORTE, S.L.U) presentaron escrito de alegaciones al recurso especial.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Errekurtsoaren onargarritasuna

Admisibilidad del recurso

LEHENENGOA.- Xedea.

PRIMERO.- Objeto.

Errekurtso hori, bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzu erregularra emateko emakida-kontratatu baten lizitazio prozeduran emandako egintzen aurka jarri da. Kontratu horren balio zenbatetsia 398.314.640,95 eurokoa zen.

El recurso se interpone contra sendos actos dictados en un procedimiento de licitación de un contrato de concesión de servicios de transporte regular de viajeros por carretera, con un valor estimado de 398.314.640,95 €.

Departamentuak bidalitako errekurtsoari buruzko txostenean, errekurtsoa onartezina dela planteatu da, eta gai hori jarraian aztertuko dugu.

En el informe acerca del recurso remitido por el Departamento, se ha planteado la inadmisibilidad del recurso, cuestión que procede analizar a continuación.

Abiapuntutzat hartu behar dugu bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzuen emakida-kontratu bat dela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1370/2007 (EE) Erregelamenduak, 2007ko urriaren 23koak, bidaiariak trenbidez eta errepidez garraiatzeko zerbitzu publikoei buruzkoak, arautzen duena eta zeinaren bidez

Debemos partir del hecho no controvertido de que nos encontramos ante un contrato de concesión de servicios de transporte de viajeros por carretera que se rige por el *Reglamento (CE) nº1370/2007 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 23 de octubre de 2007, sobre los servicios públicos de transporte de viajeros por ferrocarril y carretera y*



Kontseiluaren 1191/69 (EEE) eta 1107/70 (EEE) erregelamenduak indargabetzen baitira.

por el que se derogan los Reglamentos (CEE) n°1191/69 y (CEE) n° 1107/70 del Consejo.

Erregelamenduaren 5.1 artikulua honako hau xedatzen du:

El artículo 5.1 del Reglamento dispone:

1. Zerbitzu publikoko kontratuak erregelamendu honetan ezarritako arauen arabera esleituko dira. Hala ere, bidaiariak autobusez edo tranbiaz garraiatzeko zerbitzu publikoei dagokienez, 2004/17/EE eta 2004/18/EE zuzentarauetan definitutako zerbitzu-kontratuak edo zerbitzu publikoko kontratuak zuzentarau horietan ezarritako prozeduren arabera esleituko dira, baldin eta kontratu horiek ez badira zerbitzu-emakidako kontratu gisa hartzen zuzentarau horien adieran. 2004/17/EE edo 2004/18/EE zuzentarauren arabera esleitu beharreko kontratuei ez zaizkie aplikatuko artikuluko honetako 2. paragrafoetik 6.era bitartekoak.

1. Los contratos de servicio público se adjudicarán de acuerdo con las normas establecidas en el presente Reglamento. Sin embargo, los contratos de servicios o los contratos de servicio público, tal que definidos en las Directivas 2004/17/CE y 2004/18/CE, respecto de los servicios públicos de transporte de viajeros en autobús o tranvía, se adjudicarán con arreglo a los procedimientos establecidos en dichas Directivas cuando dichos contratos no adopten la forma de contratos de concesión de servicios en la acepción de esas Directivas. No se aplicarán las disposiciones de los apartados 2 a 6 del presente artículo a los contratos que hayan de adjudicarse con arreglo a las Directivas 2004/17/CE o 2004/18/CE

Eta 5.7 artikulua honako hau ezartzen du:

Y el artículo 5.7 establece:

Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte 2. paragrafoetik 6.era bitartekoekin bat etorritik hartutako erabakiak eraginkortasunez eta azkar berrikusi ahal izango direla ziurtatzeko, kontratu partikular bat lortzeko interesa duen edo izan duen eta ustezko arau-hauste batek kaltetu duen edo kaltetu dezakeen pertsona batek eskatuta, erabaki horiek Erkidegoko zuzenbidea edo zuzenbide hori aplikatzeko arau nazionalak urratu dituztenean.

Los Estados miembros adoptarán las medidas necesarias para asegurar que las decisiones adoptadas de conformidad con los apartados 2 a 6 puedan revisarse eficaz y rápidamente, a petición de una persona que tenga o haya tenido interés en obtener un contrato particular y que haya sido perjudicada o corra el riesgo de ser perjudicada por una supuesta infracción, cuando dichas decisiones han infringido el Derecho comunitario o normas nacionales de aplicación de dicho Derecho.

Auzia da ea, Europar Batasuneko eta Estatuko araudiaren arabera, bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzuen emakida-kontratuak SPKLren 44. artikuluan aurreikusitako kontratazio-arloko errekurtso bereziaren xede izan daitezkeen edo, aitzitik, administrazio-errekurtso arruntent bidez aurkaratu behar diren.

La cuestión controvertida es si, conforme a la normativa comunitaria y estatal, los contratos de concesión de servicios de transporte de viajeros por carretera pueden ser objeto del recurso especial en materia de contratación previsto en el artículo 44 LCSP, o si, por el contrario, deben impugnarse mediante los recursos administrativos ordinarios.

Kontratazio organoaren jarrera.

La posición del órgano de contratación.

Departamentuak dio kontratua 1370/2007 Erregelamenduak arautzen duela, eta 2014/23/EB

El Departamento sostiene que el contrato se rige por el Reglamento 1370/2007 y que queda excluido



Zuzentzarautik kanpo geratzen dela, 10.3 artikulua araber, zeinak xedatzen baitu bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzuen emakida-kontratuak zuzentzarau horren aplikazio-eremutik kanpo daudela.

Ondorioz, uste du ezin dela aplikatu Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea (SPKL), 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentzarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora, ordezkotza izan ezik.

Hala, txostenaren araber, bidaiarien garraio publiko erregularreko **zerbitzuen emakida-kontratu**ei 1370/2007 Erregelamendua aplikatuko zaie, eta bidaiariak autobusez edo tranbiaz garraiatzeko **zerbitzu publikoen kontratu**ei, berriz, SPKLari.

Horregatik, uste du ezen, SPKLtik kanpo dagoen emakida-kontratu bat denez, aurkaratutako egintzei ezin zaiela errekurtso berezirik jarri.

Txostenean aitortzen da espedientea onartzeko Diputatu Kontseiluaren erabakiak, Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren karatulak eta aurkaratutako izapide-egintzek SPKLn araututako errekurtso berezia jartzeko aukera adierazten zutela, baina uste da kontratuaren izaera juridikoaren eta aplikatu beharreko araudiaren konplexutasun teknikoa dela eta, nahi gabe egin ahal izan dela akatsa kontratua errekurtso bereziaren xede izan daitekeela uste izateko.

Beren tesia babesteko, ebazpen bana aipatzen dute (Aragoiko Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren uztailaren 30eko 63/2024 Erabakia eta Andaluziako Juntako Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegiaren ekainaren 13ko 350/2025 Ebazpena). Ebazpen horietan, auzitegi horiek ez dute onartu bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzuaren emakida-kontratuen aurkako kontratazio-arloko errekurtso

de la Directiva 2014/23/UE, en virtud de su artículo 10.3, que dispone que los contratos de concesión de servicios de transporte de viajeros por carretera están fuera del ámbito de aplicación de dicha Directiva.

En consecuencia, entiende que tampoco resulta aplicable la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), que transpone al ordenamiento jurídico español las Directivas 2014/23/UE y 2014/24/UE, salvo con carácter supletorio.

Así, según el informe, a los contratos de **concesión de servicios** de transporte público regular de viajeros les será de aplicación el Reglamento 1370/2007, y a los **contratos de servicios** públicos de transporte de viajeros en autobús o tranvía, la LCSP.

Por ello, considera que, al tratarse de un contrato de concesión excluido de la LCSP, los actos impugnados no son susceptibles de recurso especial.

En el informe se reconoce que, tanto el acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de aprobación del expediente, como la carátula del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y los actos de trámite impugnados señalaban la posibilidad de interponer recurso especial regulado en la LCSP, pero se considera que *debido a la complejidad técnica de la naturaleza jurídica del contrato y la normativa a aplicar, se ha podido cometer involuntariamente el error de considerar que el contrato pueda ser objeto de recurso especial.*

Citan en apoyo a su tesis sendas Resoluciones (Acuerdo 63/2024, de 30 de julio, del Tribunal Administrativo de Contratos Públicos de Aragón y Resolución 350/2025, de 13 de junio, del Tribunal Administrativo de Recursos Contractuales de la Junta de Andalucía) en las que dichos Tribunales han inadmitido recursos especiales en materia de contratación contra los contratos de concesión de servicio de transporte de viajeros por carretera, por



berezirik, Departamentuaren txostenean azaldutako arrazoi berberengatik.

Errekurtsogileak bere errekurtso-idazkian defendatzen du errekurtsoa onargarria dela, eta Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Zentralaren (KEAAN) 799/2025, 1495/2022 eta 1364/2022 ebazpenak eta Auzitegi Nazionalako Administrazioarekiko Auzien Salaren 2019ko urtarrilaren 2ko, 2020ko urtarrilaren 2ko eta 2020ko urtarrilaren 17ko epaiak aipatzen ditu.

Adjudikaziodun izateko proposatutako **enpresek** (EKIALDEBUS GARRAIO TALDEA) errekurtso berezia ez onartzea planteatu dute alegazio-idazkian, Departamentuaren txostenean eta Aragoiko eta Andaluziako errekurtso-auzitegien ebazpenetan azaldutako arrazoi berberengatik, eta Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2023ko irailaren 19ko eta 23ko epaiak aipatzen dituzte.

Era berean, adierazi dute Diputatuen Kongresuak onartutako Mugikortasun Jasangarriaren Lege-proiektuak azken xedapenetako zazpigarrenean aurreikusten duela SPKL aldatzea, bidaiarien garraio-zerbitzuen emakida-kontratuei kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri ahal izateko. Horrek berekin ekartzen du ezen, aldaketa hori egin arte, bidezkoa dela errekurtso berezi hau ez onartzea.

Laburbilduz, errekurtsoa onartezina dela defendatzen dutenek diote bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzuak emateko kontratuak 1370/2007 (EE) Erregelamenduak arautzen dituela, eta 2014/23/EB Zuzentarauaren eremutik kanpo geratzen direla, eta, beraz, SPKLtik kanpo, ordezko aplikaziorik ezean. Uste dute aipatutako erregelamenduaren 5.7 artikuluan aurreikusitako berrikuspen-mekanismoa ez dela SPKLn araututako errekurtso bereziaren baliokidea, baizik eta administrazio-errekurtso arruntetara bideratu behar dela.

las mismas razones expuestas en el informe del Departamento.

La recurrente, defiende en su escrito de recurso la admisibilidad del mismo y cita las Resoluciones 799/2025, 1495/2022 y 1364/2022 del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales (TACRC) y las Sentencias de la Sala de lo Contencioso-Administrativo de la Audiencia Nacional de 2 de enero de 2019, 2 de enero de 2020 y 17 de enero de 2020.

Las empresas propuestas como adjudicatarias (EKIALDEBUS GARRAIO TALDEA) plantean en su escrito de alegaciones la inadmisibilidad del recurso especial por las mismas razones expuestas en el informe del Departamento y en las Resoluciones de los Tribunales de Recursos de Aragón y Andalucía y citan las sentencias del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Valenciana de 19 y 23 de septiembre de 2023.

Señalan, a su vez, que el Proyecto de Ley de Movilidad Sostenible aprobado por el Congreso de los Diputados prevé en la Disposición final séptima la modificación de la LCSP para que los contratos de concesión de servicios de transporte de viajeros puedan ser objeto de recurso especial en materia de contratación y que ello implica que, hasta que dicha modificación no se produzca, procede la inadmisión del presente recurso especial.

En síntesis, quienes defienden la inadmisibilidad del recurso sostienen que los contratos de concesión de servicios de transporte de viajeros por carretera se rigen por el Reglamento (CE) nº 1370/2007, quedando fuera del ámbito de la Directiva 2014/23/UE y, por tanto, de la LCSP, salvo aplicación supletoria. Consideran que el mecanismo de revisión previsto en el artículo 5.7 del citado Reglamento no equivale al recurso especial regulado en la LCSP, sino que debe reconducirse a los recursos administrativos ordinarios.



Auzitegiaren oharak

Auzitegi honek onartzen du Europar Batasuneko eta Estatuko araudiaren argitasunik ezak interpretazio dibergenteak eragin dituela, baina ez dator bat horrek bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzuak emateko kontratuen lizitazio-prozeduretan emandako egintzen berrikuspena 39/2015 Legean aurreikusitako administrazio-errekurtso arruntetara mugatzea, mekanismo horiek ez baitute bermatzen Europar Batasuneko Zuzenbideak eskatutako eraginkortasuna.

1370/2007 Erregelamenduak estatu kideei ezartzen die beharrezko neurriak hartu behar dituztela Erregelamendu horrek araututako prozeduretan hartutako erabakiak eraginkortasunez eta azkar berrikusi ahal izateko, eta, 21. kontuan hartuzkoan ezartzen du berrikuspen-prozedurak Kontseiluaren 1989ko abenduaren 21eko 89/665/EEE Zuzentarauan (Baliabideen Zuzentaraua) ezarritako prozedurekin konpara daitekeela.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2008ko apirilaren 3ko epaiak (gaia: Batzordea vs Espainia C-444/06) adierazi zuen Espainiak ez zuela 89/665/EEE Zuzentaraua bete, ez zuelako bermatu mekanismo eraginkorrik kontratua egin aurretik adjudikazio-erabakiak errekurrizteko, eta erabaki zuen administrazio-errekurtso arruntek ez dituztela betetzen aipatutako zuzentarauak ezarritako betebeharrak; besteak beste, errekurtso horiek ez dutelako bermatzen kontratua egin aurretik suntsiaraztea.

Errekurtso arruntek Europar Batasuneko zuzenbidea betetzea bermatzen ez dutela ikusita, SPKLn xedatutakoa aztertu behar da.

SPKLk 4. artikulutik 11.era bitartekoetan ezarri ditu legearen aplikazio-eremutik kanpo geratzen diren negozio eta kontratuak, eta horien artean ez daude bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzuaren emakida-kontratuak.

Apreciación del Tribunal

Este Tribunal reconoce que la falta de claridad de normativa comunitaria y estatal ha propiciado interpretaciones divergentes, sin embargo, no comparte que ello conduzca a limitar la revisión de los actos dictados en procedimientos de licitación de contratos de concesión de servicios de transporte de viajeros por carretera a los recursos administrativos ordinarios previstos en la Ley 39/2015, pues tales mecanismos no garantizan la efectividad exigida por el Derecho de la Unión.

El Reglamento nº1370/2007 impone a los Estados miembros la obligación de adoptar medidas necesarias para asegurar que las decisiones adoptadas en los procedimientos regulados por dicho Reglamento puedan revisarse eficaz y rápidamente y, en su considerando 21, establece que el procedimiento de revisión debe ser comparable con los procedimientos establecidos en la Directiva 89/665/CEE del Consejo, de 21 de diciembre de 1989 (Directiva de Recursos).

La Sentencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea de 3 de abril de 2008, asunto Comisión vs España C-444/06 declaró que España incumplió la Directiva 89/665/CEE al no garantizar mecanismos eficaces para recurrir las decisiones de adjudicación antes de la celebración del contrato y consideró que los recursos administrativos ordinarios no cumplen con las obligaciones establecidas por la citada Directiva; entre otras razones, porque esos recursos no garantizan que su resolución sea emitida con anterioridad a la celebración del contrato.

A la vista de que los recursos ordinarios no garantizan el cumplimiento del derecho de la Unión Europea procede analizar lo dispuesto en la LCSP.

La LCSP establece en los artículos 4 a 11 los negocios y contratos que quedan excluidos del ámbito de aplicación de la Ley, entre los cuales no se encuentran los contratos de concesión de servicio de transporte de viajeros por carretera.



Erregulazio harmonizatuko kontratuak zedarritu ditu 19. artikulua, eta 2.g) paragrafoan baztertu egin ditu bidaiarien garraiorako emakidak, erregulazio horren ondorioetarako bakarrik, legearen gainerako zatietatik kanpo utzi gabe.

44.1 c) artikulua araberaz, hiru milioi eurotik gorako balio zenbatetsia duten obra- eta zerbitzu-emakidako kontratuen aurka errekurtso berezia jarri ahal izango da. Artikulu hori aztertuta, auzitegi honek uste du bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzuen emakida-kontratuei errekurtso berezia jarri ahal izango zaiela kontratazio-arloan, aurreikusitako atalase ekonomikoa gainditzen dutenean.

Interpretazio hori bat dator Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiak (KEAAN) 1364/2022 Ebazpenean ezarritako doktrinarekin, zeinak irizpidea bateratu baitzuen Auzitegi Nazionalaren epaien ondoren.

Bidaiarien garraio-zerbitzuen emakida-kontratuak SPKLren aplikazio-eremuan sartzeari dagokionez, KEAANK honako hau ondorioztatu zuen: *"Aplikatu beharreko Kontratuen Legean sartuta zeuden ala ez zalantzen aurrean, gaur egun argi geratzen da SPKLren 19.2 g) artikuluekin; izan ere, erregulazio harmonizatuen mendeko kontratuen erregulaziotik kanpo uzteko aipatzen baditu ere, erregulazio horren mende dauden beste zerbitzu-emakida mota batzuen aurrean, argi dago, berariaz aipatzean, SPKLren mendeko kontratutzat hartzen direla, erregulazio harmonizatuen mende daudenen araubideari jarraitu ez arren"*.

Errekurtso berezia jartzeko aukerari dagokionez, honako hau adierazi zuen: *"manu horren araberaz (SPKLren 44. artikulua), errekurtso berezia jartzeko baldintza bakarra da, alde batetik, zerbitzu-emakidako kontratu baten aurrean egotea (ez du beste betekizunik gehitzen), SPKLk berak (bereziki, 14. eta 15. artikuluetan, hurrenez hurren, obra- eta zerbitzu-emakidako kontratuetarako), doktrinak eta jurisprudentziak horrelako kontratuetarako ezarri dituzten ezaugarri*

El artículo 19 delimita los contratos sujetos a regulación armonizada y en su apartado 2.g), excluye las concesiones de transporte de viajeros únicamente a efectos de dicha regulación, sin excluirlas del resto de la Ley.

Analizado el artículo 44.1 c) que dispone que serán objeto de recurso especial los contratos de concesión de obras y servicios cuyo valor estimado supere los tres millones de euros, este Tribunal entiende que los contratos de concesión de servicios de transporte de viajeros por carretera son susceptibles de recurso especial en materia de contratación cuando superan el umbral económico previsto.

Esta interpretación coincide con la doctrina fijada por el Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales (TACRC) en su Resolución 1364/2022, que unificó criterio tras las sentencias de la Audiencia Nacional.

Respecto a la inclusión de los contratos de concesión de servicios de transportes de viajeros en el ámbito de aplicación de la LCSP, el TACRC concluyó que *"frente a las dudas pasadas sobre si estaban incluidas o no en la Ley de Contratos aplicable, se disipan actualmente con el artículo 19.2 g) LCSP porque aunque se refiere a ellos para excluirlas de la regulación de contratos sujetos a regulación armonizada frente a otro tipo de concesiones de servicios que sí están sujetos a dicha regulación, es evidente que al citarlos expresamente los están considerados como contratos sujetos a la LCSP, aunque no sigan el régimen de los sujetos a regulación armonizada"*.

En relación a la posibilidad de interponer recurso especial, señaló que *"el citado precepto (art. 44 LCSP) sólo condiciona la posibilidad de interponer el recurso especial a que, de un lado, estemos ante la presencia de un contrato de concesión de servicios (no añade ningún requisito más) con todas las características que la propia LCSP (especialmente, sus artículos 14 y 15, respectivamente, para los contratos de concesión de obras y servicios), la doctrina y la*



guztiekin; eta, bestetik, balio zenbatetsi jakin bat gainditzea (...). Ondorioz, bi baldintza horiek bete ondoren, eta latinezko "Ubi lex non distint, non distinguere debemus" printzipio zaharrari jarraikiz, ondorioztatzen dugu emakida-kontratu batean txertatutako egintza, 3.000.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duena, SPKLren 44.2 artikuluan aurreikusitakoetako bat bada, aurkaratu egin daitekeela, SPKLren 44. artikuluan araututako kontratazio-arloko errekurtso bereziaren bidez".

Azkenik, uste dugu onartu berri den Mugikortasun Jasangarriaren Legeak aurreikusten duen SPKLren aldaketak Auzitegi honen interpretazioa indartzen duela, eta argitasun eta segurtasun juridiko handiagoa ematen diola nahasgarria zen egoera bati.

Horregatik guztiagatik, auzitegi honek uste du aurkaratutako izapide-egintzen aurka kontratazio arloko errekurtso berezia jar daitekeela, zerbitzu-emakidako kontratu bat delako eta haren balio zenbatetsia hiru milioi eurotik gorakoa delako. Hala xedatzen dute Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 44. artikuluen 1.c) eta 2.b) apartatuek.

BIGARRENA.- Eskumena.

Errekurtso horren berri izateko eskumena Auzitegi honi dagokio, irailaren 28ko kontratazio-alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administrazioa sortu eta arautzeko 24/2010 Foru Dekretuaren 2.1 artikuluan esleitzen baitaia.

HIRUGARRENA.- Epea.

Errekurtsoa SPKLaren 50.1.c) artikuluan aurreikusitako hamabost egun baliaduneko epean jarri da.

Jurisprudencia han establecido para este tipo de contratos; y de otro, que se supere un determinado valor estimado, (...). En consecuencia, cumplidos únicamente estos dos requisitos y siguiendo el viejo brocardo latino "Ubi lex non distinguit, non distinguere debemus", llegamos a la conclusión que si el acto inserto en un contrato de concesión, con valor estimado superior a 3.000.000 euros, es uno de los previstos en el artículo 44.2 LCSP, es susceptible de ser impugnado a través del recurso especial en materia de contratación regulado en el artículo 44 LCSP".

Por último, consideramos que la modificación de la LCSP que prevé la recientemente aprobada Ley de Movilidad Sostenible viene a reforzar la interpretación que sostiene este Tribunal y dota de mayor claridad y seguridad jurídica a una situación que resultaba confusa.

Por todo ello, este Tribunal considera que los actos de trámite impugnados son susceptibles de recurso especial en materia de contratación por tratarse de un contrato de concesión de servicios cuyo valor estimado supera los tres millones de euros y así disponerlos el apartado 1.c) y 2.b) del artículo 44 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP).

SEGUNDO.- Competencia.

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

TERCERO.- Plazo.

El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.c) LCSP.



LAUGARRENA.- Legitimazioa.

SPKLaren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, AUTOBUSES CUADRA SA y BILMAN BUS SL enpresak legitimazioa dute errekurtsoa jartzeko, aurkeztu diren lizitazioetik kanpo uztea aurkaratzen baitu.

Auziaren funtsa:

BOSGARRENA.- Errekurritutako jarduera.

2025eko martxoaren 4ko Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak *"Bidasoa Behea eta Oarsoaldea eskualdeetan eta Donostiarekiko konexioetan erabilera orokorreko bidaiarien errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio-zerbitzu publiko erregularra emateko emakida"* kontratatzeke espedientea onartu zuen. Espediente horrek administrazio-klausula partikularren agiria eta preskripzio teknikoaren agiria barne hartzen ditu. Halaber, adjudikazio prozedura irekitzea xedatu zuen.

2025eko apirilaren 4an eta maiatzaren 7an, kontratazio-mahaia bildu zen, hurrenez hurren, BAT zenbakiko artxibo elektronikoa (administrazio-dokumentazioa) eta BI zenbakiko artxibo elektronikoa (balio-judizioaren mendeko adjudikazio-irizpideak) irekitzeko.

2025eko irailaren 10ean, kontratazio-mahaiak balio-iriztien bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko balorazio-txostena onartu zuen, eta HIRU zenbakiko artxibo elektronikoa ireki zuen (formulen araberrako adjudikazio-irizpideak).

Bilkura horren aktan honako hau jasotzen da: *"Lizitatuzaileek beren eskaintza teknikoan lortutako puntuazioak eta kontratazio-prozedura arautzen duten administrazio-klausula partikularren agiriko ezaugarrien taulako 19. apartatuan eskatzen zen 30 puntuko gutxieneko puntuazioa ikusita, mahaiko kideek aho batez erabaki dute lizitazio-prozeduratik kanpo uztea EMPRESA MARTIN SA (A28106003), AUTOBUSES CUADRA SA*

CUARTO.- Legitimación.

Las empresas AUTOBUSES CUADRA, S.A y BILMAN BUS, S.L están legitimadas para interponer el recurso de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, dado que impugna su exclusión de una licitación a la que han concurrido.

Fondo del asunto

QUINTO.- Las actuaciones recurridas.

Mediante Acuerdo de 4 de marzo de 2025, el Consejo de Gobierno Foral aprobó el expediente de contratación de la *"Concesión para la prestación del servicio de transporte público interurbano regular de viajeros de uso general por carretera de las comarcas de Bidasoa Behea, Oarsoaldea y sus conexiones con San Sebastián"*, que incluye los pliegos de cláusulas administrativas particulares (PCAP) y de prescripciones técnicas (PPT). Asimismo, dispuso la apertura del procedimiento de adjudicación.

El 4 de abril y 7 de mayo de 2025, se reunió la mesa de contratación para proceder, respectivamente, a la apertura del archivo electrónico N° UNO (documentación administrativa) y del archivo electrónico N° DOS (criterios de adjudicación sometidos a juicio de valor).

Con fecha 10 de septiembre de 2025, la mesa de contratación procedió a la aprobación del informe de valoración relativo a los criterios evaluables mediante juicios de valor y a la apertura del archivo electrónico N° TRES (criterios de adjudicación sujetos a fórmulas).

En el acta de dicha sesión se recoge que *"A la vista de las puntuaciones obtenidas por las licitadoras en su oferta técnica, así como la puntuación mínima de 30 puntos que se exigía en el apartado 19 del cuadro de características del Pliego de cláusulas administrativas particulares que rigen el procedimiento de contratación, los miembros de la mesa acuerdan por unanimidad excluir del procedimiento de licitación a las licitadoras*



(A01018258) eta SARFA SL (B62198973) EMPRESA MARTIN S.A. (A28106003), AUTOBUSES CUADRA, S.A. (A01018258) y SARFA SL (B62198973)”.
Beraz, kontratazio-mahaiak erabaki zuen enpresa errekurtsogileek aurkeztutako eskaintza baztertzea, eta erabaki hori 2025eko irailaren 11n jakinarazi zitzaizen enpresa horiei.

2025eko irailaren 15ean, enpresa errekurtsogileek gainerako lizitatzailleek aurkeztutako eskaintza teknikoak eskuratzeko eskaera aurkeztu zuten Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuan.

Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru diputatuaren irailaren 22ko FA-ML-2025-0214 Foru Aginduaren bidez, errekurtsogileei gainerako lizitatzailen eskaintza teknikoetarako sarbide partziala ematea erabaki zen.

AUTOBUSES CUADRA SAK eta BILMAN BUS SLk aurkeztutako errekurto berezian, aurkaratu egiten dituzte kontratazio-mahaiaren irailaren 10eko erabakia, beren eskaintza lizitazio-prozesutik kanpo uzten duena, eta FA-ML-2025-0214 Foru Agindua, irailaren 22koa, gainerako lizitatzailen eskaintzarako sarbide partziala baimentzeari buruzkoa.

SEIGARRENA.- Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru diputatuaren irailaren 22ko FA-ML-2025-0214 Foru Aginduari buruz.

Enpresa errekurtsogileek diotenez, kontratazio-organoak lizitazio-espeditzea osorik kontsultatzea baimentzeari uko egin izanak defentsa-gabezia sortu du, eta horrek defentsa eraginkorrerako eskubidea urratu du. Argudiatzen dutenez, errekurtoa funtsezko dokumentuak aztertzeko aukerarik izan gabe jarri da, eta horrek eragotzi egiten die baztertzeko erabakiaren legezotasuna

Por tanto, la mesa de contratación acordó la exclusión de la oferta presentada por las empresas recurrentes, acuerdo que fue notificado a las mismas el 11 de septiembre de 2025.

Con fecha 15 de septiembre de 2025, las empresas recurrentes presentaron ante el Departamento de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio una solicitud de acceso a las ofertas técnicas presentadas por el resto de licitadoras.

Mediante Orden Foral FA-ML-2025-0214, de 22 de septiembre, de la diputada foral del Departamento de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio se acordó otorgar a las recurrentes el acceso parcial a las ofertas técnicas del resto de licitadoras.

En el recurso especial presentado AUTOBUSES CUADRA, S.A y BILMAN BUS, S.L impugnan el Acuerdo de la mesa de contratación, de 10 de septiembre, por la que se excluye su oferta del proceso de licitación y la Orden Foral FA-ML-2025-0214, de 22 de septiembre, de autorización de acceso parcial a las ofertas del resto de licitadoras.

SEXTO.- Sobre la Orden Foral FA-ML-2025-0214, de 22 de septiembre, de la diputada foral del Departamento de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio.

Las empresas recurrentes sostienen que la negativa del órgano de contratación a permitir la consulta completa del expediente de licitación ha generado una situación de indefensión que vulnera su derecho a la defensa efectiva. Argumentan que el recurso se ha interpuesto sin haber podido examinar documentos esenciales, lo que les impide valorar adecuadamente la legalidad de la decisión



behar bezala baloratzea eta alegazioak egitea, kausaren erabateko ezagutzarekin.

Aurkaratutako prozedurak osagai tekniko handia duenez, ezinbestekoa da eskaintza teknikoak eskuratzea aplikatutako irizpideak ulertzeko eta bazterketa Zuzenbidearekin bat datorren egiaztatzeko. Adierazi dute txostenak ez duela behar besteko motibaziorik, eta irispiderik ez izateak eragotzi egin diela lehiakideen eskaintzekin konparazio objektiboa egitea, eta horrek mugatu egiten duela erabakiaren balizko arbitrariotasuna egiaztatzeko gaitasuna.

Era berean, salatu dute Departamentuak modu akritikoan onartu dituela adjudikaziodunek eta beste lizitatzailerik batzuek egindako konfidentzialtasun-adierazpen orokorrak, justifikazio zehatzik eskatu gabe. Gogorarazten dute konfidentzialtasuna gardentasun-printzipioaren salbuespen bat dela, eta sekretu teknikoak edo komertzialak dituen informazioa baino ezin duela babestu, sekretu horien hedapenak merkatuko lehiari eragiten badio.

Beren uzia babesteko, Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegien doktrina [KEAAN (558/2020 eta 822/2025 Ebazpenak); Sektore Publikoko Kontratugileen Kataluniako Auzitegia (231/2023 Ebazpena)] eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusien jurisprudenzia aipatzen dituzte.

Horregatik guztiagatik, eskatzen dute Auzitegi honek agindu dezala espediente osoa agerian jartzea, eskaintza teknikoak eta gainerako dokumentu garrantzitsuak kontsultatzea ahalbidetuz, eta epe bat eman dadila alegazio osagarriak egiteko.

Departamentuak bere txostenean dioenez, espediente partzialki eskuratzeko ebazpena bat dator zuzenbidearekin, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen (SPKL) 133. eta 155.3 artikuluetan aurreikusitako konfidentzialtasun-babesaren arabera. Artikulu horrek aitortzen du lizitatzailerik eskubidea dutela

de exclusión y formular alegaciones con pleno conocimiento de causa.

Destacan que el procedimiento impugnado presenta un alto componente técnico, por lo que resulta indispensable acceder a las ofertas técnicas para comprender los criterios aplicados y verificar si la exclusión se ajusta a Derecho. Señalan que el informe carece de motivación suficiente y que la falta de acceso les ha impedido realizar una comparación objetiva con las ofertas competidoras, lo que limita su capacidad para acreditar la eventual arbitrariedad de la decisión.

Asimismo, denuncian que el Departamento ha aceptado de forma acrítica las declaraciones genéricas de confidencialidad formuladas por las adjudicatarias y otros licitadores, sin exigir la justificación concreta. Recuerdan que la confidencialidad constituye una excepción al principio de transparencia y solo puede amparar información que contenga secretos técnicos o comerciales cuya divulgación afecte a la competencia en el mercado.

Invocan en apoyo a su pretensión la doctrina de Tribunales Administrativos de Recursos Contractuales [TACRC (Resoluciones 558/2020 y 822/2025); Tribunal Català de Contractes del Sector Públic (Resolución 231/2023)] y jurisprudencia de los Tribunales Superiores de Justicia del País Vasco y de Cataluña.

Por todo ello, solicitan que este Tribunal ordene la puesta de manifiesto del expediente completo, permitiendo la consulta de las ofertas técnicas y demás documentos relevantes, y que se conceda un plazo para formular alegaciones complementarias.

El Departamento sostiene en su informe que la resolución de acceso parcial al expediente se ajusta a Derecho, en virtud de la protección de la confidencialidad prevista en el artículo 133 y 155.3 de la Ley 9/2017, de Contratos del Sector Público (LCSP) que reconoce el derecho de los licitadores a preservar la información que contenga secretos



sekretu teknikoak edo komertzialak dituen informazioa gordetzeko, bai eta zabalduz gero lehia faltsutu edo enpresen interes komertzial legítimoak kaltetu ditzakeen edozein datu gordetzeko ere.

Defendatzen du kontratazio-organoak behar bezala aztertu zituela enpresa bakoitzak VII. eranskinaren bidez aurkeztu zituen konfidentzialtasun-adierazpenak, eta proposamen xehatua egin zuela, konfidentzialtzat jotzen ez duena adieraziz, enpresa lizitatuzaileek adierazitakotik harago doana, sekretu teknikoen edo komertzialen babeserik haztatu ondoren, bai eta lizitatuzaileek beren dokumentazio teknikoko atal jakin batzuei esleitu zieten konfidentzialtasun-izaera ere, defentsa-eskubidea informazio sentikorren babesarekin orekatzeko.

Azkenik, txostenak nabarmentzen du errekurtsogileak berak bere eskaintza teknikoaren zati handi bat konfidentzialtzat jo zuela, *eskaintza teknikoaren ehuneko handi bat (% 80, Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuaren zenbatespenen arabera), eta horren irismena Excel artxibora hedatzen dela: "1.9. Excel orria, zerbitzuaren ustiapena eta antolaketa, bitarteko materialak eta giza baliabide dedikatuak esleituz", hori baitzen, hain zuzen ere, espedientera sartzeko helburu nagusia (gainerako lizitatuzaileen Excel orriak). Hori egintza propioa da, eta bere posizioa mugatzen du, beste lizitatuzaile batzuen eskaintzetara sarbide osoa eskatzeko.*

Auzitegi honen abenduaren 9ko 19/2022 Ebazpena aipatzen du. Ebazpen horretan adierazi zen, batetik, konfidentzialtasunaren eta merkataritza-sekretuak babesteko eskubidearen, eta, bestetik, gardentasunaren eta babes judizial eraginkorrerako oinarritzeko eskubidearen artean egin behar den haztapenean, interpretazio-elementu erabakigarritzat hartu behar dela beste bati informazioa eskatzen dionak bere eskaintzari eman dion konfidentzialtasun-izaeraren irismena.

técnicos o comerciales, así como cualquier dato cuya divulgación pueda falsear la competencia o perjudicar los intereses comerciales legítimos de las empresas.

Defiende que el órgano de contratación analizó debidamente las declaraciones de confidencialidad que cada una de las empresas presentó mediante el Anexo VII, y realizó una propuesta *pormenorizada, señalando aquello que considera no confidencial, que va más allá de lo indicado por las empresas licitadoras, una vez ponderadas la protección de los secretos técnicos o comerciales, así como el carácter confidencial que los licitadores habían atribuido a determinados apartados de su documentación técnica* con el fin de equilibrar el derecho de defensa con la protección de información sensible.

Por último, el informe destaca que la propia recurrente declaró confidencial una parte significativa de su oferta técnica, *un porcentaje muy elevado de la oferta técnica (80% según estimaciones del Servicio de Movilidad y Transportes) y cuyo alcance se extiende al archivo Excel: "1.9. Hoja Excel, explotación y organización del servicio adonde se asignen medios materiales y humanos dedicados", cuando era precisamente el objetivo principal del acceso al expediente (las hojas Excel del resto de licitadoras)*, lo que constituye un acto propio que limita su posición para exigir acceso pleno a las ofertas de otros licitadores.

Cita la Resolución 19/2022, de 9 de diciembre de este Tribunal, en el que se señaló que en la ponderación que se debe realizar entre la confidencialidad y el derecho a la protección de secretos comerciales, por un lado, y la transparencia y el derecho fundamental a la tutela judicial efectiva, por otro, es necesario tomar como un elemento interpretativo determinante el alcance del carácter confidencial que haya dado a su propia oferta quien esté solicitando la información de otra.



Ildo beretik, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuaren inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren (KEAO) 134/2019 Ebazpena, abuztuaren 14koa, eta 130/2015 Ebazpena, azaroaren 25ekoa, aipatzen ditu. Ebazpen horietan honako hau adierazten du: "fedea onaren aurkakoa da abantaila lortzea abantaila hori nahi duenak ere egindako arau-hauste batetik".

EKIALDEBUS GARRAIO TALDEA enpresataldeak alegatu duenez, espediente eskuratzeko eskubidea eskubide instrumental bat da, eta beti lotuta egon behar du aurkaratutako ebazpenaren arrazoiarekin. Informazioa eskuratzeko eskatzen duenari dagokio eskaera horren zer informazio eta zergatia justifikatzea, eta ikerketa-asmo hutsak ezetsi egin behar dira.

AUTOBUSES CUADRA, S.A. (A01018258)	28,25	EZ GAI /NO APTA
SARFA S L (B62198973)	25	EZ GAI /NO APTA

Izen soziala / Razón Social	Puntuazioa / Puntuación	Onarpena / Admisión
EKIALDEBUS GARRAIO TALDEA (U0006733)	40	GAI/APTA
AUTOMÓVILES LUARCA, S.A.U. (U0006747)	35,25	GAI/APTA
AVANZA MOVILIDAD GIPUZKOA, S.A. (A20026084)	31	GAI/APTA
EMPRESA MARTIN S A (A28106003)	29	EZ GAI /NO APTA
AUTOBUSES CUADRA, S.A. (A01018258)	28,25	EZ GAI /NO APTA
SARFA S L (B62198973)	25	EZ GAI /NO APTA

Lizitatuak beren eskaintza teknikoan lortutako puntuazioak eta kontratazio-prozedura arautzen duten administrazio-klausula partikularren agiriko ezaugarrien taulako 19. apartatuan eskatzen zen

A la vista de las puntuaciones obtenidas por las licitadoras en su oferta técnica, así como la puntuación mínima de 30 puntos que se exigía en el apartado 19 del cuadro de características del



30 puntuko gutxieneko puntuazioa ikusita, mahaiko kideek aho batez erabaki dute lizitazio-prozeduratik kanpo uztea EMPRESA MARTIN SA (A28106003), AUTOBUSES CUADRA SA (A01018258) eta SARFA SL (B62198973) lizitatzailerak".

Pliego de cláusulas administrativas particulares que rigen el procedimiento de contratación, los miembros de la mesa acuerdan por unanimidad excluir del procedimiento de licitación a las licitadoras EMPRESA MARTIN S.A. (A28106003), AUTOBUSES CUADRA, S.A. (A01018258) y SARFA SL (B62198973)".

Aplikatu beharreko arauditik eta administrazio-klausula partikularren agiriak xedatutakotik ondorioztatzen da kontratazio-mahaiak bere eskumenen barruan jardun zuela; izan ere, lehenik eta behin, eskaintza teknikoak baloratu zituen eta lizitatzailerak bakoitzari dagokion puntuazioa zehaztu zuen. Enpresa jakin batzuk administrazio-klausula partikularren agiriak eskatutako gutxieneko atalaz iristen ez zirela egiaztatu ondoren, baldintza-agirian bertan aurreikusitako araua aplikatu zuen, hau da, lizitazio-prozeduratik kanpo uztea automatikoki.

De la normativa aplicable y de lo dispuesto por el PCAP se desprende que la mesa de contratación actuó dentro de sus competencias pues, en primer lugar, procedió a la valoración de las ofertas técnicas y determinó la puntuación correspondiente a cada licitador. Una vez constatado que determinadas empresas no alcanzaban el umbral mínimo exigido por el PCAP, aplicó la regla prevista en el propio pliego, consistente en la exclusión automática del procedimiento de licitación.

Azaldutakoagatik, Auzitegi honek uste du kontratazio-mahaiak zuzen eta bere eskumenen barruan jardun zuela, eta, beraz, errekurtsoaren arrazoi hori baztertu egin behar da.

Por lo expuesto, este Tribunal considera que la mesa de contratación actuó correctamente y dentro de sus competencias por lo que este motivo de recurso debe ser rechazado.

(ii) Errekurtsogileak dio kontratazio-mahaiak azalpen bat eskatu behar zuela aurkeztutako ustiapen-planaren edukiari buruz, prozeduratik kanpo uztea erabaki aurretik, eta kontratazio publikoa arautzen duten proportzionaltasun-printzipioa eta antiformalismo-printzipioa aipatzen ditu.

(ii) La parte recurrente sostiene que la mesa de contratación debía haber solicitado una aclaración sobre el contenido del plan de explotación presentado antes de acordar su exclusión del procedimiento e invoca los principios de proporcionalidad y antiformalismo que rigen en la contratación pública.

Departamentuak eta adjudikaziodun izateko proposatutako enpresek, ordea, adierazi dute ez zegoela argitu beharreko zalantzarik, eta zentzu horretan zuzendutako edozein eskabidek hasiera batean aurkeztutako eskaintza aldatzea ekarriko zuela. Uste dute errekurtsogileak ez zuela behar bezalako arduraz jokatu eskaintza teknikoak prestatzerakoan, eta arreta falta hori ezin dela ordeztu kontratazio-mahaiak argitzeko egindako eskaera batekin.

El Departamento y las empresas propuestas como adjudicatarias, sin embargo, señalan que no existían dudas que debían ser aclaradas y cualquier solicitud dirigida en este sentido implicaría la modificación de la oferta inicialmente presentada. Consideran que la recurrente no actuó con la debida diligencia a la hora de preparar la oferta técnica y que dicha falta de diligencia no puede ser sustituida por una solicitud de aclaración por parte de la mesa de contratación.

Auzitegi honek lehenago ere eman du bere iritzia irizpide antiformalista horren alde, baldin eta

Este Tribunal ya se ha pronunciado anteriormente a favor de dicho criterio antiformalista siempre y



eskaintzen aldaezintasunaren printzipioa errespetatzen bada. cuando se respete el principio de inmodificabilidad o inalterabilidad de las ofertas.

Hala, ekainaren 13ko 3/2024 Ebazpenean adierazten dugunez, hasieran aurkeztutako eskaintza aldatzea dakarren zuzenketa oro kontratazio publikoa arautzen duten printzipioen aurkakoa izango litzateke, eta abantaila emango lieke lizitatzailer batzuei beste batzuen aldean, beren eskaintza aldatzeko aukera emango baitie gainerako lizitatzaileren eskaintza ezagutu ondoren. Así en la Resolución 3/2024, de 13 de junio, señalamos, que *toda subsanación que implique modificar la oferta inicialmente presentada sería contraria a los principios reguladores de la contratación pública, otorgaría ventaja a unos licitadores respecto a otros, al ofrecerles la posibilidad de modificar su oferta una vez conocida la del resto de licitadores.*

Beraz, aztertu behar da ea zuzenketa posible batek aldaketarik eragingo lukeen hasieran aurkeztutako eskaintzan, eta horrek esan nahi du kontratazio organoek, edo, hala badagokio, kontratazio mahaiek, kasuz kasu aztertu behar dituztela inguruabarrak eta baloratu behar dutela zuzentzeko aukera hori emateko egokitasuna eta legezkoitasuna, eta zehaztu behar dutela zein akats diren zuzengarriak eta zein ez. *Por lo tanto, lo que se debe analizar es si una posible subsanación produciría alguna variación en la oferta inicialmente presentada, lo que implica que los órganos de contratación, o en su caso las mesas de contratación, deben analizar las circunstancias caso por caso y valorar la oportunidad y legalidad de otorgar dicha posibilidad de subsanación, concretando qué defectos consideran son subsanables y cuáles no”.*

Kasuaren inguruabar zehatzak aztertuta, honako gogoeta hauek egin behar ditugu: Analizadas las circunstancias concretas del caso, debemos realizar las siguientes consideraciones:

AKPAren karatulako 19. apartatuak, adjudikazio-irizpideei buruzkoak, honako hau ezartzen du: El apartado 19 de la carátula del PCAP relativo a los criterios de adjudicación establece:

"Proposamenei gehienez ere EHUN (100) puntu emango zaizkie, balorazio- eta puntuazio-irizpide hauen arabera:

“Las proposiciones se puntuarán hasta un máximo de CIEN (100) puntos, conforme a los criterios de valoración y puntuación siguientes:

- *Balio-iritzien bidez kuantifika daitezkeen irizpideak: 42 puntu.*
- *Formulak aplikatuz kuantifika daitezkeen irizpideak: 58 puntu.*
- *Criterios cuantificables mediante juicio de valor: 42 puntos.*
- *Criterios cuantificables mediante aplicación de fórmulas: 58 puntos.*

Enpresa lizitatzaileraren batek ez badu aurkeztu adjudikazio-irizpideekin lotutako dokumentazioa edo ez baditu hurrengo apartatuetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen, proposamena ez da baloratuko dagokion irizpideari dagokionez”.

Si alguna empresa licitadora no aportara la documentación relacionada con los criterios de adjudicación o no contiene todos los requisitos exigidos en los apartados siguientes, la proposición no será valorada respecto del criterio de que se trate.”

Memoria Teknikoari dagokionez, eskatzen diren preskripzio teknikoak betetzea helburu duen proposamen bat aurkeztuko dela ezartzen du, eta *"balio-judizioa aurkeztutako proposamen teknikoen kalitate-azterlanaren arabera izango*

Respecto a la Memoria Técnica establece que se presentará una propuesta que persiga cumplir las prescripciones técnicas demandadas y que *“el juicio de valor responderá al estudio de calidad de*



da". Zerbitzua Ustiatzeko eta Antolatzeko irizpideari dagokionez, *"excel orri bat aurkeztu behar da, zerbitzuaren ustiaketa eta antolaketa hori barne hartzen dituen, baliabide materialak eta giza baliabide dedikatuak esleituta"*.

Balorazio-txostenak AKPAren 5.1.3 apartatuan honako honi buruzko adjudikazio-irizpideari buruz xedatutakoa errepikatzen du: *"Posizionamenduta erretiratze-denboren azterketaren balorazioa, segidako bidaldien arteko erregulazio-denborak, zerbitzuko txandak eta bitarteko gehigarrien proposamenak"*. Zehazki, errekurtso honetan eztabaidagarria den irizpidearen balorazioari dagokionez, honako hau adierazten du: *"emakidallerro guztietan "erreboteak" (erregulazio-denborak = 0) dituzten txanda guztiak sailkatu eta kuantifikatuko dira, lizitazio-proiektuak berak planteatzen dituen lerroetan izan ezik.*

Proposamenean lerro bakoitzerako adierazitako ondoz ondoko errebote-kopuruaren arabera, proposamena arina, konprometitu edo kritikoa izango da. Hori guztia ezarritako ordutegiak behar bezala betetzen direla bermatzeko. Gehienez 2 puntu".

Azkenik, proposamena arin, konprometitu edo kritikoa gisa sailkatzeko kontuan hartuko diren parametroak azaldu ditu, errebote-kopuruaren eta jarraituak diren ala ez kontuan hartuta.

Jarraian, aurkeztutako eskaintza bakoitza baloratzen du txostenak, eta honako balorazio hauek giten ditu erreboteei dagokienez:

Adjudikaziodun gisa proposatutako enpresen eskaintzan adierazten duenez, *"dokumentazioa aztertu ondoren, ez da errebote operatiborik identifikatu"*.

Enpresa errekurtsogileen eskaintzan adierazten duenez, *"ez du aukerarik ematen jarraian erreboterik ez dela gertatzen egiaztatzeko, memorian adierazten den bezala"*.

las propuestas técnicas presentadas". Sobre el criterio Explotación y Organización del Servicio exige la presentación de una *"Hoja Excel que incluya esta explotación y organización del servicio adonde se asignen medios materiales y humanos dedicados"*.

El informe de valoración reproduce en su apartado 5.1.3 lo dispuesto por el PCAP sobre al criterio de adjudicación relativo a la *"Valoración del análisis de tiempos de posicionamiento y retirada, tiempos de regulación en cabecera entre expediciones sucesivas, relevos en servicio y propuestas de medios adicionales"* y concretamente en relación a la valoración del criterio que resulta controvertido en este recurso señala que *"se clasificarán y cuantificarán todos los turnos que presentan "rebotes" (tiempos de regulación = 0) en todas las líneas de concesión, exceptuando aquellas líneas en las que el propio Proyecto de licitación los plantea.*

Según el número de rebotes sucesivos reflejados en la propuesta para cada línea, la propuesta se considerará como leve, comprometida o crítica. Todo ello en aras de garantizar el correcto cumplimiento de los horarios establecidos. Máximo 2 puntos".

Por último, expone los parámetros que se tomarán en cuenta para clasificar la propuesta como leve, comprometida o crítica, que dependerá del número de rebotes y de si son o no consecutivos.

A continuación, el informe valora cada una de las ofertas presentadas y realiza las siguientes valoraciones respecto a los "rebotes":

En la oferta de las empresas propuestas como adjudicatarias señala que *"tras el análisis de la documentación no se han identificado rebotes operativos"*.

En la oferta de las empresas recurrentes señala que *"no permite verificar la afirmación de que no se producen rebotes consecutivos, como se indica en la memoria"*.



Gainerako lau eskaintzetan "errebote arinak" daudela azaldu du.

En las restantes cuatro ofertas expone que existen "rebotes puntuales de carácter leve".

Arestian azaldutakotik ondorioztatzen da, gainerako lizitatuzaileen eskaintzetan ez bezala, errekurtsogilearen eskaintza teknikoak ez zuela behar besteko informazioz ondoz ondoko erreboterik ez zegoela egiaztatzeko.

De lo expuesto anteriormente se deduce que, a diferencia de las ofertas del resto de licitadoras, la oferta técnica de la parte recurrente no disponía de la información necesaria que permitiera verificar que no se producían rebotes consecutivos.

Balorazio-txostenean ez da aipatzen Exceleko datuen edo informazioen interpretazioan zalantzarik dagoenik; aitzitik, txostenaren edukia ez zen nahikoa beharrezko egiaztapenak egiteko.

En el informe de valoración no se menciona que existan dudas en la interpretación de los datos o informaciones que constaban en el Excel, sino que el contenido del mismo resultaba insuficiente para realizar las comprobaciones necesarias.

Ondorioz, Auzitegi honek uste du Excel orrian emandako informazioa nahikoa ez izatea ez dela akats formal hutsa, baizik eta funtsezko gabezia bat, zerbitzuaren ustiapenari eta antolaketari buruzko adjudikazio-irizpidea behar bezala baloratzea eragozten duena.

En consecuencia, este Tribunal considera que la insuficiencia de la información aportada en la hoja Excel no constituye un defecto meramente formal, sino una carencia sustancial que impide la correcta valoración del criterio de adjudicación relativo a la explotación y organización del servicio.

Inguruabar hori ezin da zuzendu argibide soil baten bidez, hasierako eskaintzan agertzen ez ziren datu berriak sartzea eskatuko bailuke.

Tal circunstancia no puede ser subsanada mediante una simple aclaración, pues requeriría incorporar datos nuevos que no figuraban en la oferta inicial.

Gogoratu behar da proposamenaren funtsezko edukia aldatzen ez duten akats edo omisioetara mugatzen dela zuzentzeko aukera, eskaintzen aldaezintasunaren printzipioaren arabera. Kasu honetan, informazio gehigarria ematea baimentzeak proposamen teknikoak aldatzea ekarriko luke, eta horrek printzipio hori urratuko luke eta lizitatuzaileen arteko tratu-berdintasunari eragingo lioke.

Debe recordarse que la posibilidad de subsanación se limita a errores u omisiones que no alteren el contenido esencial de la proposición, conforme al principio de inmutabilidad de las ofertas. Permitir la aportación de información adicional en este caso supondría modificar la propuesta técnica, lo que vulneraría dicho principio y afectaría a la igualdad de trato entre licitadores.

Horregatik guztiagatik, aurkaratzeko arrazoi hori baztertu egin behar da.

Por todo ello, debe rechazarse este motivo de impugnación.

(iii) Errekurtsogileak, hirugarren alegazio-arrazoi gisa, eskaintzen balorazioa ez onartzea planteatu du, administrazio-klausula partikularren agirian ezarritako azpi-irizpideen puntuazioa ez adierazteagatik.

(iii) La recurrente plantea como tercer motivo de alegación la inadmisibilidad de la valoración de las ofertas por no expresar la puntuación de los subcriterios establecidos en el PCAP.

AKPAREN karatulako 19. apartatuak honako irizpide eta azpi-irizpide hauek ezartzen ditu memoria teknikoak baloratzeko:

El apartado 19 de la carátula del PCAP establece los siguientes criterios y subcriterios para la valoración de la Memoria Técnica:



Memoria teknikoa balioesteko irizpideak: (42 puntu, gehienez ere)

Irizpide bakoitzaren puntuazioak azpi-irizpidearen balorazioaren arabera esleituko dira, taula honetan adierazitako gehieneko puntuazioei jarraituz:

Irizpidea	Irizpidearen gehieneko haztapena	Azpiirizpidea	Azpiirizpidearen gehieneko haztapena
1.- Zerbitzua ustiatzea eta antolatzea	23,0	Baliabideak esleitzea: metodologia eta aplikatutako hipotesiak.	0,5
		Eskainitako plan osorako giza baliabideak eta baliabide materialak antolatze, kudeatze eta esleitzeko plana	12,0
		Posizionamendu eta erretiratzeko denborak, ondoz ondo ibilaldien arteko goiburuko erregulazio denborak, zerbitzuko erreleboak eta bitarteko osagarrien proposamenak aztertzea.	7,0
		Ordutegi hobekuntzak, zerbitzuen eta garraio nodoen arteko koordinazioa (intermodalitatea) hobetzeko, bai eta eskaintza eta eskaera egokitzeko ere.	2,0
		SAE aginte postuaren funtzionamendua.	1,0
		Plangintza tresnak.	0,5
2.- Kontingentziak kudeatzea eta konpontzea	6,0	Kontingentziak konpontzeko plana (gorabeherak, erregulazioak, zerbitzu aldaketak...).	3,0
		Eskari handiegia denean gauzatu beharreko eragiketak	3,0
3.- Ibilgailuak: Segurtasuna, mantentze lanak, garbiketa.	10,0	Segurtasuna eta hobekuntzak ibilgailuetan	2,0
		Ibilgailuen mantentze lanak	7,0
		Ibilgailuen garbiketa	1,0
4.- Instalazioak: Baldintzak, mantentze lanak eta garbiketa.	2,0	Instalazioetako baldintzak.	1,0
		Instalazioen mantentze lanak eta garbiketa.	1,0
5.- Ikuskapena eta autokontrola	1,0	Ikuskapena eta autokontrola	1,0
Irizpideen gehieneko haztapena guztira	42,0	Azpiirizpideen gehieneko haztapena	42,0

Criteria para la valoración de la Memoria Técnica: (máximo 42 puntos)

Las puntuaciones de cada criterio se asignarán conforme a la valoración del subcriterio de acuerdo a las puntuaciones máximas indicadas en el siguiente cuadro:

Criterio	Ponderación máxima criterio	Subcriterio	Ponderación máxima subcriterio
1.- Explotación y Organización del Servicio	23,0	Asignación de recursos: metodología e hipótesis aplicadas	0,5
		Plan de organización, gestión y asignaciones de recursos humanos y medios materiales al conjunto del plan ofertado	12,0
		Análisis de tiempos de posicionamiento y retirada, tiempos de regulación en cabecera entre expediciones sucesivas, relevos en servicio y propuestas de medios adicionales.	7,0
		Mejoras horarias que redunden en la mejora de la coordinación entre servicios y con nodos de transporte (intermodalidad) y en la adecuación oferta-demanda	2,0
		Operativa del puesto de mando SAE	1,0
		Herramientas de planificación	0,5
2.- Gestión y Resolución de Contingencias	6,0	Plan de resolución de contingencias (incidencias, regulaciones, alteraciones del servicio...)	3,0
		Operativa ante excesos de demanda	3,0
3.- Vehículos: Seguridad, Mantenimiento, Limpieza.	10,0	Seguridad y mejoras en vehículos	2,0
		Mantenimiento de vehículos	7,0
		Limpieza de vehículos	1,0
4.- Instalaciones: Condiciones, Mantenimiento y Limpieza.	2,0	Condiciones de las instalaciones	1,0
		Mantenimiento y limpieza de instalaciones	1,0
5.- Inspección y Autocontrol	1,0	Inspección y Autocontrol	1,0
Ponderación total máxima criterios	42,0	Ponderación total máxima subcriterios	42,0

Jarraian, azpi-irizpide bakoitzean baloratuko diren alderdiak deskribatzen ditu, eta, lau azpi-irizpidetan (1.2, 1.3, 1.4 eta 3.1), egingo den azterketa-prozesua adierazten du, eta dagokion azpi-irizpidearen puntuen banakapena ezartzen du.

Azpi-irizpide bakoitzean baloratuko diren alderdiak zehaztu ondoren, administrazio-klausula partikularren agiriak honako hau ezartzen du: "Lizitatuak aurkeztutako azpi-irizpide bakoitzaren proposamena baloratzeko, baloratu beharreko azpi-irizpideari esleitutako gehieneko puntuazioaren gaineko ehuneko bateko kalifikazioa emango zaio proposamen horri. Azpi-irizpide bakoitzerako kontuan hartu beharreko kalifikazioak eta horiei lotutako puntuazio-ehunekoak honako hauek izango dira:

A continuación describe los aspectos que serán valorados en cada subcriterio y, en cuatro subcriterios (1.2, 1.3, 1.4 y 3.2), señala el proceso de análisis que se llevará a cabo y establece un desglose de puntos dentro del subcriterio en cuestión.

Tras detallar los aspectos que serán objeto de valoración en cada subcriterio, el PCAP establece que "para la valoración de la propuesta de cada subcriterio presentada por los licitadores se asignará a dicha propuesta una calificación con un porcentaje sobre la puntuación máxima asignada al subcriterio a valorar. Las distintas calificaciones a considerar para cada subcriterio y su porcentaje de puntuación asociado serán las siguientes:

Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako
Foru Auzitegi Administraitibo

Tribunal Administrativo Foral de Recursos
Contractuales



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

Ebaluazioa	Kalifikazioa	FAKTOREA
Ez dago proposamenik edo ez du interes nabarmenik kontratuaren xederako	Ez dago/ Ez da nahikoa	% 0-39
Interes txikiko proposamena kontratuaren xederako	Eskasa	% 40-59
Interes ertaineko proposamena kontratuaren xederako	Egokia	% 60-79
Interes handiko proposamena kontratuaren xederako	Nabarmena	% 80-90
Interes handieneko proposamena kontratuaren xederako	Bikaina	% 91-100

Azpi-irizpide bakoitzaren balorazioa puntu laurdenera biribilduko da.

Balorazio-txostenak lizitatzailerik bakoitzaren eskaintzak aztertzen ditu, eta azpi-irizpide bakoitzean positibotzat eta negatibotzat jotzen diren alderdiak nabarmentzen ditu. Azpi-irizpide bakoitzaren balorazioa Ez dago/Ez da nahikoa, eskasa, egokia, nabarmena edo bikaina da, eta dagokion puntuazioa ematen du, azpi-irizpide bakoitzaren gehieneko mugak errespetatuz.

Azkenik, taula batean jasotzen ditu lizitatzailerik bakoitzak balio-judizio baten mendeko irizpideetan lortu dituen puntuazioak, azpi-irizpideen araberrako banakapenarekin:

Criterio	Ponderación máxima criterio	Subcriterio	Ponderación máxima subcriterio	ERREALISUR GARRAIO TALEKA	AUTOMÓVILES LUARCA, S.A.U. (ALIA)	AUTOMOBILES CUADRA, S.A.	AVANZA MOVILIDAD GIPUZKOA, S.A.	EMPRESA MARTIN S.A	SABSA S.L (LA UNIÓN)
1. Eragin eta Organigrama del Servicio	23	Asignación de recursos, metodología e hipótesis aplicadas	0,5	0,50	0,25	0,25	0,25	0,25	0,25
		Plan de organización, gestión y asignación de recursos humanos y medios materiales al conjunto del plan ofertado	12	11,75	9,00	8,00	8,00	5,50	8,00
		Análisis de tiempos de posicionamiento y retirada, tiempos de regulación en cabina entre expediciones sucesivas, niveles de servicio y prioridad de medios adicionales.	7	7,00	6,50	4,50	4,50	4,50	5,50
		Empresa fiscalizadora que realicen en la mejora de la coordinación entre servicios y con modo de transporte (intermodalidad) y en la adecuación oferta-demanda.	2	2,00	1,50	0,00	0,50	1,50	0,00
		Operativa del puesto de mando SAE	1	1,00	0,75	1,00	0,75	0,50	0,75
		Herramientas de planificación	0,5	0,50	0,50	0,25	0,50	0,50	0,50
2. Gestión y Resolución de Contingencias	6	Plan de resolución de contingencias (procedimientos, regulaciones, alteraciones del servicio...)	3	2,75	2,50	1,25	2,50	2,25	2,50
		Operativa ante exceso de demanda	3	2,50	2,50	1,00	3,00	2,25	2,25
3. Vehículos: Seguridad, Mantenimiento, Limpieza.	10	Seguridad y mejoras en vehículos	2	1,50	1,50	1,50	0,75	1,00	0,50
		Mantenimiento de vehículos	7	6,75	6,50	6,50	6,50	7,00	6,50
		Limpieza de vehículos	1	0,75	1,00	1,00	1,00	1,00	0,75
4. Instalaciones: Condiciones, Mantenimiento y Limpieza.	2	Condiciones de las instalaciones	1	1,00	1,00	1,00	0,75	1,00	1,00
		Mantenimiento y limpieza de instalaciones	1	1,00	0,75	0,75	1,00	1,00	0,75
5. Inspección y Autocontrol	1	Inspección y Autocontrol	1	1,00	1,00	0,75	1,00	0,75	0,75
Ponderación total máxima criterios	42	Ponderación total máxima subcriterios	42	40,00	35,25	26,25	31,00	29,00	25,00

Errekurtsogileak alegatu duenez, lehen aipatutako 1.2, 1.3, 1.4 eta 3.2 azpi-irizpideei dagokienez, balorazio-txostenak ez du azaltzen adjudikazio-irizpide horietako barne-bloke edo -item

Evaluación	Calificación	FACTOR
Propuesta inexistente o sin interés significativo para el objeto del contrato	Inexistente/ Insuficiente	0-39%
Propuesta de interés bajo para el objeto del contrato	Escasa	40-59%
Propuesta de interés medio para el objeto del contrato	Adecuada	60-79%
Propuesta de interés alto para el objeto del contrato	Notable	80-90%
Propuesta de interés máximo para el objeto del contrato	Excelente	91-100%


La valoración de cada subcriterio será redondeada a cuartos de punto.

El informe de valoración analiza las ofertas de cada licitadora y destaca en cada subcriterio los aspectos que se valoran positiva y negativamente. Concluye cada subcriterio con la calificación de *Inexistente/Insuficiente, escasa, adecuada, notable o excelente* y otorga la puntuación correspondiente respetando los límites máximos de cada subcriterio.

Por último, recoge en un cuadro las puntuaciones que cada licitador ha obtenido en los criterios que dependen de un juicio de valor con el correspondiente desglose por subcriterios:

Criterio	Ponderación máxima criterio	Subcriterio	Ponderación máxima subcriterio	ERREALISUR GARRAIO TALEKA	AUTOMÓVILES LUARCA, S.A.U. (ALIA)	AUTOMOBILES CUADRA, S.A.	AVANZA MOVILIDAD GIPUZKOA, S.A.	EMPRESA MARTIN S.A	SABSA S.L (LA UNIÓN)
1. Eragin eta Organigrama del Servicio	23	Asignación de recursos, metodología e hipótesis aplicadas	0,5	0,50	0,25	0,25	0,25	0,25	0,25
		Plan de organización, gestión y asignación de recursos humanos y medios materiales al conjunto del plan ofertado	12	11,75	9,00	8,00	8,00	5,50	8,00
		Análisis de tiempos de posicionamiento y retirada, tiempos de regulación en cabina entre expediciones sucesivas, niveles de servicio y prioridad de medios adicionales.	7	7,00	6,50	4,50	4,50	4,50	5,50
		Empresa fiscalizadora que realicen en la mejora de la coordinación entre servicios y con modo de transporte (intermodalidad) y en la adecuación oferta-demanda.	2	2,00	1,50	0,00	0,50	1,50	0,00
		Operativa del puesto de mando SAE	1	1,00	0,75	1,00	0,75	0,50	0,75
		Herramientas de planificación	0,5	0,50	0,50	0,25	0,50	0,50	0,50
2. Gestión y Resolución de Contingencias	6	Plan de resolución de contingencias (procedimientos, regulaciones, alteraciones del servicio...)	3	2,75	2,50	1,25	2,50	2,25	2,50
		Operativa ante exceso de demanda	3	2,50	2,50	1,00	3,00	2,25	2,25
3. Vehículos: Seguridad, Mantenimiento, Limpieza.	10	Seguridad y mejoras en vehículos	2	1,50	1,50	1,50	0,75	1,00	0,50
		Mantenimiento de vehículos	7	6,75	6,50	6,50	6,50	7,00	6,50
		Limpieza de vehículos	1	0,75	1,00	1,00	1,00	1,00	0,75
4. Instalaciones: Condiciones, Mantenimiento y Limpieza.	2	Condiciones de las instalaciones	1	1,00	1,00	1,00	0,75	1,00	1,00
		Mantenimiento y limpieza de instalaciones	1	1,00	0,75	0,75	1,00	1,00	0,75
5. Inspección y Autocontrol	1	Inspección y Autocontrol	1	1,00	1,00	0,75	1,00	0,75	0,75
Ponderación total máxima criterios	42	Ponderación total máxima subcriterios	42	40,00	35,25	26,25	31,00	29,00	25,00

La recurrente alega que en lo que respecta a los subcriterios 1.2, 1.3, 1.4 y 3.2 referidos anteriormente, el informe de valoración no explica la puntuación asignada según cada uno de esos



bakoitzaren arabera esleitutako puntuazioa; aitzitik, eskaintzak oro har baloratzen ditu zuzenean. AKPAren ondoriozko barne-mugak bete direla erabat egiaztatzea ezinezkoa izanik.

Epaimahai honek uste du balorazio-txostenak AKPA-n ezarritako irizpideak eta azpi-irizpideak errespetatzen dituela eta baldintza-agirian aurreikusitako metodologiari jarraitzen diola, azpi-irizpide bakoitzean positiboki baloratzen diren alderdiak eta negatiboki baloratzen direnak nabarmenduz, proposamena existitzen ez dela, nahikoa ez dela, interes ertaina duela, nabarmena dela edo bikaina dela ondorioztatzeko. Era berean, egiaztatu da ez direla gainditu AKPA-n xedatutakoaren arabera azpi-irizpide bakoitzari esleitutako gehieneko puntuazioak.

1.2, 1.3, 1.4 eta 3.2 azpi-irizpideetan aurreikusitako barne-jarraibideei dagokienez, horiei AKPA-n gainerako azpi-irizpide guztiak baloratzeko sartzen diren gainerako jarraibideen funtzio bera esleitu behar zaie. Hau da, atal zehatz horietan, zenbakiz kuantifikatutako elementuak sartu dira jarraibide horietan, baina horrek ez ditu azpi-irizpide bihurtzen, lehen adierazitako taula espezifikoan zehaztu baitira. Ulertu behar da, beraz, baldintza-agirian memoria teknikoak baloratzeko aurreikusitako gainerako jarraibideen helburu berari erantzuten diotela, hau da, balorazioa diskrezionalitate teknikoaren esparruan gidatzea, balio-judizioaren mendeko irizpideetan balioespen-askatasunari buruzko doktrina finkatuaren arabera. Jurisprudenzia eta Kontratu Errekurtsoen Auzitegi Administratiboek berretsi dute diskrezionalitate teknikoak ezin dela ordeztu organo berrikuslearen irizpidearekin, arbitrariotasuna edo ageriko akatsa hautematen ez bada, eta hori ez da gertatzen kasu honetan.

Aurreko ondorioa hertsiki lotuta dago errekurtsogilearen laugarren alegazioarekin (iv). Alegazio horren arabera, balorazio-txostenak ez du motibaziorik eta ez dago eskaintzen arteko konparazio-azterketarik.

bloques o ítems internos de esos criterios de adjudicación, sino que directamente valora las ofertas en términos globales. Imposibilitando completamente verificar que se hayan cumplido los límites internos resultantes del PCAP.

Este Tribunal considera que el informe de valoración respeta los criterios y subcriterios establecidos en el PCAP y sigue la metodología prevista en el pliego, destacando en cada subcriterio los aspectos que se valoran positivamente y los que se valoran negativamente para concluir si la propuesta se considera inexistente, insuficiente, de interés medio, notable o excelente. Asimismo, se constata que no se han superado las puntuaciones máximas asignadas a cada subcriterio conforme a lo dispuesto en el PCAP.

En cuanto a las pautas internas previstas en los subcriterios 1.2, 1.3, 1.4 y 3.2, debe atribuirse a éstas la misma función que al resto de pautas que se incluyen en el PCAP para valorar todos los demás subcriterios. Es decir, en estos concretos apartados, esas pautas han incluido elementos cuantificados de forma numérica, pero ello no los convierte en subcriterios, ya que estos han sido determinados en el cuadro específico anteriormente reproducido. Ha de entenderse, por tanto, que responden a la misma finalidad que el resto de pautas previstas en el pliego para valorar la memoria técnica, esto es, guiar la valoración en el marco de la discrecionalidad técnica, conforme a la doctrina consolidada sobre la libertad de apreciación en criterios dependientes de juicio de valor. La jurisprudencia y los Tribunales Administrativos de Recursos Contractuales han reiterado que la discrecionalidad técnica no puede ser sustituida por el criterio del órgano revisor salvo que se aprecie arbitrariedad o error manifiesto, lo que no concurre en el presente caso.

La anterior conclusión se encuentra estrechamente relacionada con la alegación cuarta (iv) de la recurrente, que sostiene que el informe de valoración adolece de falta de motivación y de ausencia de estudio comparativo entre las ofertas.



Doktrina finkatua da ez dela beharrezkoa txosten teknikoek arrazoiketa zehatz eta xehaturik izatea, nahikoa baita arrazoizkoak eta zabaltasun nahikokoak izatea interesdunek egintzaren arazoien berri izan dezaten eta beren eskubideak eta interesak defenda ditzaten. Jurisprudentziak behin eta berriz adierazi du hori, eta onartu du arrazoiketa laburra izan daitekeela, nahikoa bada (Konstituzio Auzitegiaren 37/1982 Epaia, ekainaren 16koa; Auzitegi Gorenaren Epaia, 1986ko ekainaren 9koa; 1995eko urriaren 31koa; 1998ko urtarrilaren 20koa; 1998ko otsailaren 11koa eta 13koa; martxoaren 9koa, maiatzaren 25koa eta ekainaren 15koa; 1999ko otsailaren 19koa eta maiatzaren 5koa; eta 2000ko urtarrilaren 13koa).

Orain aztertutako kasuan, egiazta daiteke balorazio-txostenak behar den xehetasuna jasotzen duela, lizitatzailleek azpi-irizpide bakoitzean puntuazioa emateko arrazoiak ezagutu ditzaten, positiboki eta negatiboki baloratutako alderdiak nabarmenduz. Gainera, txostenak lizitatzaille bakoitzak lortutako puntuazioak erraz konparatzeko aukera ematen du, eta horrek kalifikazioan eragina izan duten elementuak egiaztatzeko eta edozein arbitrarioratasun baztertzeko aukera ematen du.

Horregatik guztiagatik, Auzitegi honek ondorioztatzen du aurkaratutako txostenak AKPA-n aurreikusitakoa eta araudiak eta jurisprudentziak ezarritako motibazio-eskakizunak betetzen dituela, balorazio-prozesuaren gardentasuna eta trazabilitatea bermatuz. Beraz, ez da bidezkoa hirugarren eta laugarren aurkaratze-arrazoiak baiestea.

Es doctrina consolidada que no es preciso que los informes técnicos contengan un razonamiento exhaustivo y pormenorizado, bastando con que sean racionales y de suficiente amplitud para que los interesados tengan el debido conocimiento de los motivos del acto y puedan defender sus derechos e intereses. Así lo ha señalado reiteradamente la jurisprudencia, admitiendo que la motivación puede ser sucinta siempre que sea suficiente (STC 37/1982, de 16 de junio; STS de 9 de junio de 1986; 31 de octubre de 1995; 20 de enero de 1998; 11 y 13 de febrero, 9 de marzo, 25 de mayo y 15 de junio de 1998; 19 de febrero y 5 de mayo de 1999; y 13 de enero de 2000).

En el supuesto ahora analizado, puede comprobarse que el informe de valoración contiene el detalle necesario para que los licitadores conozcan las razones que han llevado a asignar la puntuación en cada subcriterio, destacando los aspectos valorados positiva y negativamente. Además, el informe permite comparar fácilmente las puntuaciones obtenidas por cada licitador, lo que posibilita verificar qué elementos han influido en la calificación y descartar cualquier arbitrariedad.

Por todo ello, este Tribunal concluye que el informe impugnado cumple con lo previsto en el PCAP y con las exigencias de motivación establecidas por la normativa y la jurisprudencia, garantizando la transparencia y la trazabilidad del proceso de valoración, por lo que no procede estimar los motivos de impugnación tercero y cuarto.



Departamentukoak ez diren pertsonen balorazio-txostena egiten parte hartzeari buruzko bosgarren (v) arrazoiari dagokionez, egiaztatuta geratu da kontratazio-organoak kanpoko laguntza teknikoa izan zuela, dagokion prozeduraren bidez behar bezala kontratatua, euskarri espezializatua emateko, kontratuaren konplexutasuna kontuan hartuta. Egoera horrek azaltzen du balorazio-txosten teknikoa duen artxiboko metadatueta egile gisa beste pertsona bat agertzea, ez sinatzailea.

Era berean, azpimarratu behar da, dokumentuaren barne-propietateak alde batera utzita, Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuko buruak elektronikoki sinatu duela balorazio-txostena, eta ez dela zalantzan jarri hura emateko gaitasuna duenik.

Azaldutako guztiagatik, Auzitegi honek ondorioztatzen du ez dagoela irregulartasunik balorazio-txostena egitean, eta, beraz, ez da bidezkoa aurkaratzeko arrazoi hori baiestea.

HAMAİKAGARRENA - Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegia errekurtsogileei isun bat jartzera eraman dezakeena, SPKLak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Horren arabera, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

Sobre el motivo quinto (v) relativo a la participación de personas ajenas al Departamento en la elaboración del informe de valoración ha quedado acreditado que el órgano de contratación contó con asistencia técnica externa debidamente contratada mediante el procedimiento correspondiente, con el fin de aportar soporte especializado, dada la complejidad del contrato. Esta situación explica que en los metadatos del archivo que contiene el informe técnico de valoración, aparezca como autora una persona diferente a quien lo suscribe como propio.

Asimismo, debe destacarse que, con independencia de las propiedades internas del documento, el informe de valoración se encuentra firmado electrónicamente por el Jefe del Servicio de Movilidad y Transportes, cuya capacitación para emitirlo no ha sido puesta en cuestión.

Por todo lo expuesto, este Tribunal concluye que no concurre irregularidad alguna en la elaboración del informe de valoración, por lo que no procede estimar este motivo de impugnación.

UNDÉCIMO. - No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- BUS CUADRA SA eta BILMAN BUS SL enpresek "Bidasoa Behereko eskualdeetan, Oarsoaldean eta Donostiarekiko loturetan erabilera orokorreko bidaiarien errepide bidezko hiriarteko garraio publiko erregularreko zerbitzuak emateko emakida (LUR-E-01)" kontratatze prozeduran emandako egintzen aurka jarritako kontratazio-arloko errekurtso berezia ezestea.

ACUERDA

PRIMERO.- Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por las empresas AUTOBUSES CUADRA, S.A y BILMAN BUS, S.L contra los actos dictados en el procedimiento de contratación de la "Concesión para la prestación de los servicios de transporte público interurbano regular de viajeros de uso general por carretera de las comarcas del Bajo Bidasoa, Oarsoaldea y sus conexiones con San Sebastián (LUR-E-01)".



BIGARRENA.- Esleipen egintzaren etenaldia indargabetzea.

SEGUNDO.- Levantar la suspensión del procedimiento de adjudicación.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke ebazpen honen aurka Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Donostia, 2025eko abenduaren 2a / San Sebastián, 2 de diciembre de 2025.

IDAZKARIA / LA SECRETARIA,

Nekane Orbegozo Zurutuza